OIARTZUNGO UDALA

**Espedientearen kodea:** 2025ID340006
**Espedientearen gaia**: Oiartzungo bide edo zoru publikoan terrazak jartzea arautzen duen udal-ordenantza
**Titularra:** OIARTZUNGO UDALA

**OIARTZUNEN BIDE EDO ZORU PUBLIKOAN TERRAZAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN UDAL-ORDENANTZA IDATZI AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA**

Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatutakoaren arabera, herritarrek lege mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran duten parte-hartzea hobetzearren, arautegi-proiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:

· Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
· Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
· Arauaren helburuak.
· Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Herritarrek, erakundeek eta elkarteek, hala uste badute, 2025eko urriaren 8 arte helaraz ditzakete galdetegi honetan planteatutako alderdiei buruzko iritziak, helbide elektroniko honen bidez: www.oiartzun.eus, edo Udaleko Erregistro Orokorrean (Done Eztebe plaza, 1).

Ekarpen horiek aztertu eta kontuan hartuko dira, hala badagokio.

**EKIMENAREKIN KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK:**

Espazio publikoetan terrazak, mahaitxoak eta aldi baterako edo sasoiko beste elementu batzuen ugaritzeak koordinazio eta kontrol premia berriak sortu ditu herrietan, bai interes orokorraren ikuspegitik, bai hiri-espazioaren erabiltzaileen arteko eskubideen orekaren, ingurumenaren babesaren eta herritarren bizikidetzaren ikuspegitik. Horrela, udal administrazioari erabilera horiek kudeatzeko eta antolatzeko tresna juridiko egokiak eman nahi dizkio ordenantzak, aldi berean hiri ingurunearen segurtasuna, irisgarritasuna eta funtzionaltasuna bermatuz.

**CONSULTA PÚBLICA PREVIA A LA REDACCIÓN DE LA ORDENANZA REGULADORA DE LAS TERRAZAS EN VIA Y SUELO PUBLICOS**

De conformidad con lo previsto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, con el objetivo de mejorar la participación de la ciudadanía en el procedimiento de elaboración de normas, con carácter previo a la elaboración del proyecto de normativa, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente, en la que se recabará la opinión de las personas y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:

·Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.
· La necesidad y oportunidad de su aprobación.
· Los objetivos de la norma.
· Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

La ciudadanía, organizaciones y asociaciones que así lo consideren, pueden hacer llegar sus opiniones sobre los aspectos planteados en este cuestionario, hasta el día 8 de octubre de 2025, a través del siguiente buzón de correo electrónico: www.oiartzun.eus, o en el Registro General del Ayuntamiento (Plaza Done Eztebe, 1).

Dichas aportaciones serán estudiadas y tenidas en cuenta, en su caso.

**LOS PROBLEMAS QUE SE PRETENDEN SOLUCIONAR CON LA INICIATIVA:**

La proliferación de terrazas, veladores y otros elementos de carácter temporal o estacional en espacios públicos ha generado nuevas necesidades de coordinación y control en las localidades, tanto desde el punto de vista del interés general como del equilibrio de derechos entre los diferentes usuarios del espacio urbano, la protección del medio ambiente y la convivencia ciudadana. De esta manera, la ordenanza aspira a dotar a la administración municipal de los instrumentos jurídicos idóneos para gestionar y ordenar estos usos, garantizando al mismo tiempo la seguridad, accesibilidad y funcionalidad del entorno urbano.

Bide publikoan terrazak jartzeak erronka juridiko, urbanistiko eta sozial ugari planteatzen ditu. Ordenantzaren bidez aurre egin nahi zaion arazo nagusietako bat espazio publikoa behar ez bezala edo desordenatuta okupatzea da, oinezkoen mugikortasuna zailduz, desgaitasuna duten pertsonentzako hesiak sortuz, eta larrialdietarako ibilgailuen edo udal zerbitzuen zirkulazio askea oztopatuz. Ordenantzak terrazen kokapena, azalera, ordutegiak eta baldintza teknikoak arautuko dituzten parametro objektiboak ezarri nahi ditu, establezimenduen titularrei zein oinezkoei eta egoiliarrei segurtasun juridikoa eskainiz. Era berean, funtsezkoa da terrazetako jardueraren ondoriozko eragozpenak saihesteko neurriak hartzea, hala nola zaratak, zikinkeria edo pilaketak, arrazoizko mugak eta kontrol sistema eraginkorrak ezarriz.

La instalación de terrazas en la vía pública plantea numerosos retos de índole jurídica, urbanística y social. Uno de los principales problemas que se pretende afrontar mediante la ordenanza es la ocupación indebida o desordenada del espacio público, lo que puede dificultar la movilidad peatonal, generar barreras para personas con discapacidad, y obstaculizar la libre circulación de vehículos de emergencia o servicios municipales. La ordenanza pretende establecer parámetros objetivos que regulen la ubicación, superficie, horarios y condiciones técnicas de las terrazas, ofreciendo seguridad jurídica tanto a los titulares de los establecimientos como a los transeúntes y residentes. Asimismo, es esencial contemplar medidas que eviten las molestias derivadas de la actividad en terrazas, como ruidos, suciedad o aglomeraciones, estableciendo límites razonables y sistemas de control efectivos.

**ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA:**

Ordenantza espezifiko bat onarttzean, Udalak bere ahalmen arauemailea eta jabari publikoa kudeatzeko ahalmena erabiliz jarduten du, eta modu proportzionatuan esku hartzen du bide publikoaren erabilera pribatiboen eta aprobetxamendu bereziko erabileren antolamenduan, hiri espazioen erabilera arrazional eta parekidea bermatzeko.

Ordenantza honen xedea da bide edo zoru publikoan terrazak eta instalazio osagarri mugikorrak, hala nola eguzkitakoak, toldoak, etab. jartzeko araudi tekniko eta juridikoa ezartzea eta horretarako baldintzak zehaztea

**LA NECESIDAD Y OPORTUNIDAD DE SU APROBACIÓN:**

Mediante la aprobación de una ordenanza específica, el Ayuntamiento actúa en ejercicio de su potestad normativa y de gestión del dominio público, interviniendo de forma proporcionada en la ordenación de los usos privativos y de aprovechamiento especial de la vía pública para garantizar una utilización racional y equitativa de los espacios urbanos.

El objeto de la presente ordenanza es establecer la normativa técnica y jurídica para la instalación de terrazas e instalaciones auxiliares móviles en vía o suelo público, tales como sombrillas, toldos, etc. y determinar las condiciones para ello..

**ARAUAREN HELBURUAK.**

Besteak beste, Ordenantzak lizentziak eta baimenak lortzeko prozedura finkatu, okupatutako azaleraren, bide-kategoriaren eta baimendutako aldiaren arabera udal-tasen ezarpena arautu, eta bizikidetza, osasungarritasun edo erabileren bateragarritasun arauen aurka gertatzen diren arau-hausteetarako zehapen-esparru egokia aurreikusi nahi du. Era berean, udalaren esku-hartzearen bidez, ingurumenaren eta hiri-ingurunearen babesa indartu nahi da, bai eta jarduera ekonomikoen integrazio harmonikoa erraztu ere, herritar guztiek espazio publikoaz goza dezaten.

**LOS OBJETIVOS DE LA NORMA:**

Entre otros, la ordenanza pretende fijar el procedimiento para la obtención de licencias y autorizaciones, regular el establecimiento de tasas municipales en función de la superficie ocupada, la categoría vial y el periodo autorizado, y prever un marco sancionador adecuado para las infracciones que se produzcan contra las normas de convivencia, salubridad o compatibilidad de usos. Asimismo, se busca a través de la intervención municipal reforzar la protección del medio ambiente y del entorno urbano, así como facilitar la integración armónica de las actividades económicas con el disfrute del espacio público por parte de todos los ciudadanos.

**IZAN LITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILE ETA EZ-**

**LAS POSIBLES SOLUCIONES ALTERNATIVAS REGULATORIAS Y NO**

OIARTZUNGO UDALA

**ERREGULATZAILEAK**

Aztergai dugun gaia ordenantzaz arautu behar da, pertsona multzo zehaztugabea duelako hartzaile, eta gerora eta ondoz ondo aplika daitekeelako.

Bestalde, ez dago alternatiba ez-erregulatzailerik; izan ere, lortu nahi diren helburuak honako hauen bitartez soilik lor daitezke: jarduketak aurreikusiz eta betebeharrak eta muga juridikoak ezarriz.

**REGULATORIAS:**

La cuestión que nos ocupa procede ser regulada por ordenanza porque tiene como destinatarias a una pluralidad indeterminada de personas, es susceptible de ulteriores y sucesivas aplicaciones.

Por otro lado, no hay alternativas no regulatorias, puesto que los objetivos pretendidos únicamente pueden ser alcanzados mediante la previsión de actuaciones, imposición de deberes y limitaciones de orden jurídico.